

## HITZ BITAN

HEZKUNTZA. Ekimen dinamika aurkeztu du

## «Hezkunza eskubideen urraketaen kontra» ekimenak iragarri ditu IAK

Eider Goenaga | DONOSTIA

Ikasturte berria abiatu dela-eta, Euskal Herriko hezkuntza sistemen «hutsak» nabarmendu nahi izan zituen atzo Ikasle Abertzaleak taldeak, 2001-2002 ikasturterako ekimen dinamika aurkezteko tenorean. «Euskal ikasleen eskubideak urratuak izaten dira egunero, batez ere hizkuntza eta kultura eskubideak. Inposatutako sistema arrotzen ondorio dira urraketa horiek, eta aurre egin behar zaie», esan zuen Miren Zabaleta IAKo bozeramaileak.

Iaren arabera, Hego Euskal Herriko hizkuntza ereduen politikak «ez du bete ezarria zuen helburua». Zabaletak azaldu zuenez, «ez da ikasleria euskalduntzea lortu», eta mahai gainean dagoen eztabaida hori

bultzatzea izango da Iaren helburuetako bat. Hizkuntza eskubideei dagokienez, Lanbide Heziketa eta unibertsitateak izango dira «helburu nagusia»: «Batez ere Nafarroako Unibertsitate Publikoa, euskal ikasleen hizkuntza eskubideak eraso zuenak jasaten ari direlako».

Hizkuntza eskubideez gain, ikasleen kultur eskubideek jasaten duten eraso nabarmendu zuen Zabaletak: «Frantzia eta Espainiako estatuek Euskal Herriko edukiak ezagutzeko eskubidea ukatzen digute». Hala, Frantziak «era ezkutuagoan» eta Espainiak «eraso garbia egin» eskubide horri egiten dioten eraso aipatu zuen: «Frantziako Hezkuntza Ministerioak hezkuntza sistema zentrolean sartzeko eskaintza egin die hizkuntza gutxituetako sistemei;



MIREN SAEZ

IAK antolatuta Gasteizen egindako herri-eskolak.

eta Espainiako Gobernuak Humanitateen Dekretua, Unibertsitate Legea, Lanbide Heziketaren birmoldaketa eta Kalitatearen Legea erabiliko ditu horretarako».

**Dinamikak: intsumisioa eta alternatiba**

Aipatutako hutsei eta eskubide urraketei aurre egiteko modu

bakarra «euskal hezkuntza sistema propio bat eratzea» dela dio IAK, eta zentzu horretan bideratuko dute ikasturte honetarako ekimen dinamika.

Alex Marañonek adierazi zuenez, hezkuntza sistema propioaren aldeko borroka bi ildotan banatuko da. «Intsumisioa izango da horietako bat. Iaz dagoeneko egin genituen hainbat

ekimen, eta horretan sakontzea izango da gure erronka aurtengatik», adierazi zuen. Hala, intsumisio ekimenak areagotu eta autogestioan lan egingo dutela iragarri zuten IAKo bozeramaileak. Bestetik, egungo hezkuntza sistemei alternatiba bilatzen hasi behar dela adierazi zuten; eta hori herri-eskolak bezalako ekimenekin egin behar dela.

## SUTEAK

**Nafarroako Suhiltzaileek zaintze lanetan jarraitzen dute Iratxeta eta Munarrizketako inguruetan**

Nafarroako Suhiltzaileetako talde batek Iratxeta eta Munarrizketako inguruetan jarraitu zuen atzo, astelehenean sortutako sutea berri ez pizteko zaintze lanetan. Ezkaba mendian, Añorben eta Artaxonan erretako eremuak zaintzen aritu ziren. Suteetako batzuk uztondoak erretzean gertatu direla-eta, Nafarroako Ingurumen sailburu Javier Markotegik adierazi du uztondoak erretzeak ez dakarrela onurarik, eta suteak sortzeko arriskua dutela. Ahal den neurrian uztondorik ez erretzeko aholkatu die Markotegik nekazari; eta, erretzekotan, arauak jarraitzeko.

## EUSKARA

**Euskaltzaleon Elkarguneak kanpaina egingo du Araban euskaltegietan matrikulatzera dei egiteko**

Euskaltzaleon Elkarguneak kanpaina berezia egingo du Araba osoan, euskara ez dakitenek edo hizkuntzaren ezagutza hobetzea behar dutenek euskaltegietan matrikula egin dezaten. Ekimenaren bitartez, Araban azken ikasturtean izandako ikasle kopurua (sei mila lagun ingurukoa) handitzea espero du. Euskaltzaleek nabarmendu dute Araban dagoen «eskaintza mardula» euskara ikasi ahal izateko. «Euskaltegien sare handia aprobetxatu eta euskara ikasteko pauso pertsonala ematera deitzen dugu», adierazi zuen Euskaltzaleon Elkarguneko Txus Argotek.

## DROGA

**Emazte bat atxilotu dute Bilbon droga trafikoa leporatuta**

Droga trafikatzeko leporatzen dioten emazte bat atxilotu zuen Bilboko Udaltzaingoak, joan den ostegunean. 15 gramo droga zeramala harrapatu zuten. Bere etxean, haatik, 1,4 kilo droga kimiko eta 75 gramo kokaina aurkitu zituen Poliziak. Bi aste egin zituen Udaltzaingoak haren atzetik. Izan ere, Bilboko Aste Nagusian San Frantzisko auzora droga erostera pertsona anitz joaten zirela ohartu zen Polizia, eta 22 urteko emazte hori trafikoan sartua zela sumatu zuen. Udaltzaingoaren arabera, droga saltzaileekin kontaktu franko zituen. Hori dela eta, droga banatzea leporatzen diote.

## DIRU LAGUNTZA

**Bizkaiko eta Gipuzkoako autisten gurasoen elkarteek 45 milioi pezeta jasoko dute**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 45 milioi pezetako laguntza (1,8 milioi libera) eskainiko die autisten gurasoen elkartei. Hezkuntzak ekartzen dituen gastu handiak ttipitu nahi dituzte. Hala, Gautena Gipuzkoako elkarteak 29 milioi ukanen ditu eta Bizkaiko Apnabi elkarteak 16 milioi. Eskola garraioak ordaintzera bideratuko dira laguntzak. Autismoa eta beste erako zailtasunak dituztenak jangelan laguntzeko ere erabiliko dute dirua.



EDURNE KOCH

## DEMOGRAFIA

**Donostiak iaz baino 1.000 biztanle gehiago ditu, batez ere immigrazioa dela-eta**

Donostiako Udalak atzo emandako datuen arabera, Gipuzkoako hiriburuak 181.176 biztanle ditu; iaz baino 1.000 gehiago. Hazkuntza horren iturburu batez ere immigrazioa da. Maria San Gil zinegotziak eman zituen datu horiek. Haren arabera, «jaiotza tasa ez da etxafuegoak botatzeko modukoa, eta immigrazioari eskertu behar zaio hazkundean». Izan ere, urtean zehar 1.645 pertsona hil dira, eta jaiotzak soilik 1.540 izan dira; beraz, horrek eraginik ez du izan 1.000 pertsonako hazkundean. Horrez gain, kanpora bizitzera joan diren pertsonen kopurua 3.432koa da, eta Donostian errolatu diren pertsonen kopurua 3.828koa.

## LEGIONELLA

**Zientziak aholkatutako irizpideei jarraitu ziela dio Osasunbideak**

Legionellari buruzko erabakiak antzeko egoeretarako aholkatutako irizpideei jarraituz hartu zirela adierazi zuten atzo Osasunbideko teknikari eta osasun kudeatzaileak. Jasotako kritikei eta salaketei erantzun zien Osasunbideak: «Erabakiak adituz osatutako talde batek hartu zituen, kide guztien adostasunez; eta zientziak aholkatu irizpideei jarraitu genien». Hala, eskura zuten informazioaren arabera jokatu zutela eta ez zutela inor arriskuan jarri erran dute.

**ITZULIDATZ ikastaroa Idazkuntza eta Itzulpengintza**

2001eko urritik 2002ko maiatzera 165 ordu  
Astearte eta ostegun arratsaldeetan, 16:30-19:45  
Donostian

Izen ematea eta informazioa:  
943 32 69 04 (10:30-12:30) – E-mail: itzulidatz@euskalnet.net



**Itzulidatz**  
LAN-TALDEA

Mandasko dukea, 30 behea – 20012 Donostia